

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3947

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 3koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea helburu duen 2023-2025 aldirako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera.

Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea helburu duen 2023-2025 aldirako dirulaguntzen deialdiaren 7. artikulua (2023-05-24ko EHAA), prozedura eta ebazpena arautzen dituenak, 3. apartatuan ezartzen du, eskabideak aztertu eta ebaluatze aldera, ebaluazio-batzorde tekniko bat sortuko dela.

Batzorde hori honako lanpostu hauek osatuko dute, eta, horiek ez badaude, haien ordezkoez:

- Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendaria.
- Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko arduraduna.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikari-profila duten bi pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein botoa emateko eskubidea izango du.

Aipatutako deialdiaren 7. artikulua araberan, ebaluazio-batzorde hori da behin-behineko ebazpen-proposamena egiteko arduraduna.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikulua dioenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da dirulaguntza emateko proposamena egiteko ardura duten organoen osaera.

Hori guztia ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Aditzera ematea ebazpen honetan aipatzen den deialdiaren 7. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera:

Batzordeburua:

- Juan Carlos Ibarrola Sáenz de Ugarte, Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.

Idazkaria:

- Jone Irizar Ariceta, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Bokal titullarrak:

- Eduardo Campo Guillerna, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko koordinatzailea.
- Joseba Larrañaga Osinalde, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Ordezko kideak:

- Javier Armaolea Juaristi, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Veneranda Andrés Andrés, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Batzordeburua ez badago, bokaletako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurren-keran.

Idazkaria ez badago, bokaletako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeraren alderantzizkoan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 3a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria,
JUAN CARLOS IBARROLA SÁENZ DE UGARTE.